



# ESKOLA<sup>ri</sup>

buruz pentsatzeko

## PROPOSAMENAK

Ellen Duthie eta Daniela Martagón



Zer egin behar dut eta nolakoa izan behar dut irakasle ona izan nahi badut?

**Zertarako balio du eskolak?**

Katu bat izan liteke irakasle ona gizakientzat? Eta robot bat?

Zer ikasi duzu gaurko egunean, oraingoz?



Kaixo, aizu! Bai, zu zeu!  
**Gustatuko litzaizuke irakaslerik gabeko eskola batean ibiltzea?**

Zuk ahal izango zenuke izan zerbaiten irakaslea? Zeren irakaslea?

**Nolakoa litzateke zure ametsetako eskola?**

Eta zure amesgaiztoetakoa?



**WONDER  
PONDER**

Ikus-filosofia haurrentzat

TTARTTALO





# Ikastea



Nola ikasten dira gauzak? Ba ote dira ikasteko modu desberdinak?

Ikasten den guztiak balio al du zerbaitetarako?

Zer ikasi duzu gaurko egunean, oraingoz?

Noren esku dago zuk zerbait ikastea: zure esku, irakaslearen esku edo apur bat bien esku? Azaldu zer esan nahi duzun.

Ikasi al zenuen zerbait oporretan?

Zer gauza ikastea da garrantzitsua?

Inoiz ikasi al duzu zerbait nahi gabe?

Nork erabaki behar du zer den ikasteko garrantzitsua?

Posible litzateke bizitza osoa bizitzea ezer ikasi gabe? Nolakoa litzateke sekula ezer ikasi ez duen pertsona bat?

Ba al dago EZ ikastea hobe den gauzarik?



Estralurtar batek zure eskolan lur hartu du eta galdetu dizu ea zer esan nahi duen ikasteak. Nola azalduko zenioke?

Zer duzu nahiago? Etxean ordenagailuaren bidez ikasi ala eskolan irakaslearekin?

Zure ustez, iritsiko al da behar duzun guztia ikasita izango duzun eguna?



Posible da zerbait buruz jakitea eta, hala ere, ezer ez ulertzea?

Zer gauza ikas daitezke esfortzurik gabe? Zer gauza ezin daitezke ikasi esfortzurik gabe?

Ba ote da desikasi beharreko gauzarik? Zer, adibidez?

Ikas dezakegu ulertu gabe? Uler dezakegu ikasi gabe?

Gainditu dezakegu azterketa bat ulertu gabe?

AaGgPpEeRrTtUu

Inoiz aspertzen al zara eskolan? Noiz?

Zer egin dezake irakasleak asperdura gutxitzeko?

Zer egin dezakezu zuk zeure asperdura gutxitzeko?





“Honela, amatxo?”.

Gustatuko litzaizuke lehoiak  
hezten ikastea? Zergatik?

Zer desberdintasun dago  
hezitzearen eta heztearen artean?


Zuk nahiago zenuke  
lan egin eskolara joan  
baino? Zergatik?

Lehoiak zertan ari dira: jolasten, ikasten edo lan egiten?  
Neskatxoa zertan ari da: jolasten, ikasten edo lan egiten?

Zer desberdintasun dago jolastu,  
ikasi eta lan egitearen artean?

Ikastea arriskutsua  
izan daiteke?

Haur batek lan egin nahi badu,  
horretarako libre izan  
behar luke?



“Nork daki erantzuna?”.

Hobeto portatuko litzateke ikastaldea giza irakasle batekin robot irakasle batekin baino?

**Nor litzateke irakasle hobea: robot bat ala pertsona bat? Zergatik?**

Datuak izatea ezagutzak izatea da? Ordenagailuek ulertzen al dute?

Zer ezaugarri izan behar ditu ikasle onak?

Robot irakasle horrek den-dena ikusten du. Ona al da neska-mutilak beti zaintzapean egotea?

Taldeko ikasle bat robot bat da. Ba ote du zentzurik robot bat eskolara joateak?

Ezagutzak izatea aski ote da irakasten jakiteko? Zer ezaugarri izan behar ditu irakasle onak?



Zu bazina eskolako zuzendaria, zer arau ezarriko zenizkieke irakasleei? Eta ikasleei?

Norengandik gehiago ikasten dituzu gauzak, irakasleengandik aparte?

# Irakasleak

Zer ezaugarri izan behar ditu irakasle onak?

Zure ustez, zer gertatuko litzateke irakaslerik gabeko eskola batean? Izango luke desabantailarik? Eta abantailarik?

## Elkarrizketa zure irakasleari




- 1 Zer gustatzen zaizu egitea eskolan ez zaudenean?
- 2 Zure eskola sasoian, zer gustatzen zitzaizun eskolatik eta zer ez?
- 3 Zure eskola sasoian, izan al zenuen irakasleren bat gustukoa ez zenuena?  
Zer zen gustatzen ez zitzaizuna?
- 4 Gustatzen al zaizu zure lana?
- 5 Zer da zailena zure lanean?
- 6 Zer da atseginena zure lanean?
- 7 Inoiz izan al zenuen "gutxiegi" azterketaren batean?
- 8 Zure ikasleek irakasten al dizute zerbait zuri?
- 9 Nola ikasten da irakasten?
- 10 Zure iritziz, zer da zure ikasleek ikasi beharreko gauzarik garrantzitsuena?

Pentsatu zure irakaslea zehatzago ezagutzen lagunduko dizun beste galdera bat, eta gehitu elkarrizketari.  
Ondoren, egin galderak.

### Ipuina / Idazlana

Batzuetan, idazteak pentsatzen laguntzen du.  
Idatzi nahi al duzu irakaslerik gabeko eskola bati buruz?  
Ea zer ideia eta egoera interesgarri bururatzen zaizkizun.





# Lagunak, ikaskideak eta eskolako beste piztia batzuk

Zer ezaugarri izan behar du lagun onak?

Zer gauza izugarri barkatuko zenizkioke lagun on bati?

Zer egingo zenuke ikaskide batek eskatuko balizu egin nahi ez duzun zerbait egiteko?




Ba al da zerbait sekula barkatuko ez zenukeena, ezta zure lagunik handienari ere?

Inoiz tratatu al zaituzte gaizki jolastokian? Zer egin zenuen?

Zer egingo zenuke ikusiko bazenu norbait beste norbait gaizki tratatzen jolastokian?

Inoiz konturatu al zara gaizki tratatu duzula pertsonaren bat? Zer egin zenuen?



Zer duzu nahiago: notak isilpekoak izatea ala mundu guztiak jakitea mundu guztiaren notak? Zergatik?

Idea ona ala txarra irudituko litzaizuke gelako notarik onenak ateratzen dituztenei dominak ematea?



## Eskola

Zertarako balio du eskolak?

(Idatzi zerrenda batean!)

Zure eskolak balio al du gauza horietarako?

# Zure eskola

Zer gauza on ditu zure eskolak?

**Zer gauza hobegarri ditu zure eskolak?**

Zer egin dezakezu zuk zeure eskola hobetzeko?



**Zure eskolako zer arau iruditzen zaizkizu onak?**

**Zer gauza hobetu ahal lirateke zure ikasgelan eta jolastokian diruaren bitartez?**

Zer gauza hobetu ahal lirateke zure ikasgelan eta jolastokian dirurik erabili gabe?



Ba al da zure eskolan arauaren bat oso ondo ulertzen ez duzuna edo gustatzen ez zaizuna? Zein? Zergatik?

## Nire ametsetako eskola / Nire amesgaiztoetako eskola

Galdera interesgarriak, laguntza gisa:

**Ipuina / Marrazkia / Idazlana**

**Nolakoa litzateke ikasgela perfektua?**

**Nolakoa litzateke jolastoki perfektua?**

**Zer arlo edota zer gauza ikasiko zenituzke?**

**Nor izango litzateke irakaslea? Nolakoa litzateke? Zer ezaugarri izango lituzke?**

**Nola ikasiko zenuke?**


**Nola jokatuko lukete ikasleek beren artean?**

**Nola jokatuko lukete irakasleek?**

**Egongo litzateke araurik? Zure erantzuna "bai" bada, zein lirateke arau horiek?**


**Egongo litzateke uniformerik? Nolakoa?**

**Nolakoa litzateke araurik gabeko eskola bat?**



Nire ametsetako eskola /  
Nire amesgaiiztoetako eskola

**Ipuina / Marrazkia / Idazlana**



A large, empty, rounded rectangular box with a black border, intended for drawing or writing.



**Nire galderak**

# **ESKOLA** **ri buruz**

Idatz itzazu zure galderak eskolari buruz oro har, edota zeure eskolari buruz zehazki. Koaderno honetako galderarik gustukoena har ditzakezu, baina pentsatu zeuk ere galdera on batzuk, kontu interesgarriak aterako zaizkizu eta. Zure galderak serioak nahiz umorezkoak izan daitezke (edota bietakoak), erantzuten errazak edo zailak, marrazkitxo eta guztikoak zein ez. Nahi duzun bezala!

# Dilemak

Ez dakizunean zer egin behar duzun, dilema bat daukazu. Bi arauk talka egingo balute bezala gertatzen da.

**PUN!**


**L**agun batek eskatu dizu zure azterketa disimuluz erakusteko kopiatu ahal izateko. Alde batetik, garbi daukazu azterketetan ez dela ez hitz egin behar, ezta kopiatu ere. Beste alde batetik, garbi daukazu besteei lagundu egin behar zaiela, bereziki lagunei. Hori nahastea! Zer egin?

**Z**ure etxekoan iritziz, birusaren kontua ez da hainbesterako eta musukoa erabiltzea, neurritz gaineko neurria. Eskolan, ordea, esaten dizute pandemia errealitate bat dela eta musukoak erabiltzea beharrezkoa dela gaixotasuna zabaldu ez eta bizitzak salbatzeko. Hori nahastea! Zer egin dezakezu informatzeko eta nola jokatu erabakitzeko?



**E**gunero ikusten duzu haur bat beste bat gaizki tratatzen jolastokian. Zuri ez dizu ezer egiten inoiz, baina berdin jokatzen du beti, kontu handiz irakasleek ikus ez dezaten. Alde batetik, badakizu gertatzen ari dena ez dagoela ondo eta ez duzu nahi horrela jarraitzerik. Baina beste alde batetik, ez zaizu gustatzen kontakatilua izatea eta beldur pixka bat ere ematen dizu esateak, ea besteak ez ote duen jakingo zeu izan zarela kontuarekin joan dena. Hori nahastea! Zer egin?

Koaderno hau dohainik jaitsi daiteke Wonder Ponder proiektutik. Ezagutzen al dituzu gure liburu-jokoak, Ikus-filosofia haurrentzat?



Wonder Ponder proiektuak filosofiaren galdera handienetako batzuk luzatzen dizkie irakurleei, modu jostagarri eta erakargarrian. Wonder Ponder liburu-jokoak begiratu, irakurri eta pentsatzeko diseinatu dira, bakarka nahiz taldean, familia-giroan, testuinguru ludikoetan edota hezkuntza-esparruan.



**Ikus-filosofia haurrentzat**  
[wonderponderonline.com](http://wonderponderonline.com)